

DINOSAUROEN KOBABA

**SUGE HEGODUNAREN
HEGALDIA**

Egilea:
REX STONE


Irudiak:
MIKE SPOOR

Itzultzailea:
USOA
WYSSENBACH



FITXA

⇒ JAMIE DUELA GUTXI ETORRI DA HIRITIK DINSAUROEN BADIAKO ITSASARGIRA BIZITZERA. BERE AITAK, HEMENDIK GUTXIRA, DINSAUROEN MUSED BAT IREKIKO DU ITSASARGIAREN BEHEKO SOLAIRUAN. JAMIE HONDARTZAKO ITSASLABAR BIRRIDUETARA FOSILEN BILA JOAN, ETA HERRIKO MUTIL BAT EZAGUTU DU: TOM. BI LAGUNEK SEKRETU LILURAGARRI BAT AURKITU DUTE: BENETAKO DINSAUROAK DITUEN MUNDU BAT! LURREAN DINSAUROEN ARTEAN IBILTZEA GAUZA BAT DA, BAINA HAI EKIN HEGAM EGITEA BESTELAKOA DA GUZTIZI!



*OHARRA: JATOM BAT JAMIAREN EDO TOMEN NEURRIA DA:
125 CM-KO ALTUEA ETA 27 KG-KO PISUA

TOM

- IZEN-ABIZENAK: THOMAS CLAY
- ADINA: 8 URTE
- TAMAINA: JATOM BAT*
- GEHIENEKO ABIADURA: 24 KM/H
- ATSEGIN DU:
ANIMALIEN DINATZAK
JARRAITZEA ETA BASA
BIZITZA ESPLORATZEA
- EZ DU ATSEGIN: EGUN EURITSUAK



Begia



Eskua

WANNA

- IZENA: WANNANOSAURUS
- ADINA: 65-80 MILIOI URTE**
- TAMAINA: JATOM BAT*
- GEHIENEKO ABIADURA: 50 KM/H.
BEREZIKI T-REX BATEK HARRAPATU
NAHI DUENEAN
- ATSEGIN DU: GINKGO IZENEKO
FRUTA KIRATSA ETA ZUHAITZEN
ENBORRAK BURUAZ JOTZEA
- EZ DU ATSEGIN: DINOSAURO
BELDURGARRIAK



Burua



Hanka

*OHARRA: JATOM BAT JAMIEREN EDO TOMEN NEURRIA DA:

125 CM-KO ALTUERA ETA 27 KG-KO PISUA

**OHARRA: ZIENTZIALARIEK "GOI KRETAZEDA" DEITZEN DIOTE GARAI HONI

QUETZALKOATLUS

Xehetasuna



Begia



Mokoa



- **IZENA:** QUETZALKOATLUS
- **ADINA:** 65-80 MILIOI URTE**
- **LEPOA:** JIRAFa BATENA BAIKO LUZEAGOA
- **ZABALERA:** 14 JATOM* ARTE
- **PISUA:** 5 JATOM*
- **ATSEGIN DU:** INDIZ IZAN DEN IZAKI HEGALARI HANDIENA IZATEA
- **EZ DU ATSEGIN:** DINOSAUROEKIN NAHASTEA, PTEROSAURORA BAITZEN (NARRASTI HEGALARIA)

Atzaparrak



*OHARRA: JATOM BAT JAMIEREN EDO TOMEN NEURRIA DA:
125 CM-KO ALTUERA ETA 27 KG-KO PISUA

**OHARRA: ZIENTZIALARIEK "GOI KRETAZEOA" DEITZEN DIOTE GARAI HONI

DINOSAURDEN BADIA





Lokatza eta fosilak dauden lur-jausiak

Hondartza lohitsuia


Hondartza, itsasgora dagoenean

Hondartza, itsasbehera dagoenean

DINOSAUROEN KOPA

Itsasoa

Kontrabandisten gunea



—Maketa hau itzela da! —oihukatu
zuen Jamiek, Tomek, bere lagunik onenak,
miniaturazko oihanean azken zuhaitza itsatsi
zuenean.

Bi mutilek Historiaurreko paisaia
margotzen igaro zuten goiza, eta dagoeneko
bukutzen ari ziren. Eskalan egindako ereduak
idazmahaiaren gainazal osoa hartzen zuen, eta
Jamieren aitak ireki beharreko dinosauroen
museo berrian egongo zen ikusgai. Bizi ziren
itsasargi zaharraren beheko solairuan egongo
zen museoa.

—Zingira gustatzen zait gehien —esan zuen Tomek itsasgarria mahai gainean utziz.

Maketari “Goi Kretazeoa” deitu zioten, eta denetarik zuen: oihana, zelaiak, itsaslabarren hondartza eta zingira beldurgarria. Aitak mahai azpian jarritako ke makinari esker, kea zabaltzen zen zingiratik, lainoa balitz bezala.

Aita gelan sartu zen, eskuan posta zekarrela.

—Lan bikaina egin duzue ozeanoa margotzen —esan zien, eta irribarre egin zuen haien arropak margo-ziprirtinez zikinduak zeudela ikusita—. Eta zuen arropak margotzen egin duzuen ere ez da txantxetakoa!

